

## **SORTERRIRA BUELTAN**

Lourdes Elizegi, 15 urte

*Elizondo*

2000ko, irailaren 25<sup>a</sup>

*Itsasontzi baten, Euskal Herritik kanpora*

*Naramate eta ez dakit nora.*

*Agur nire ama, laztan goxoari.*

*Agur nire maite, politari.*

*Ez egin negar, etorriko naiz*

*Egunen batez pozez kantari.*

\* \* \*

Ni ordea, Kaxiano zenak (goian bego) bertso honekin erraten duen bezala, ez naiz pozez kantari bueltatu sorterrita, ez horixe. Zein gauza triste den goizetan egun onak emateko, alboan inor ez izatea, edota eri zaudenean zutaz arduratzeko inor ez edukitzea. Ai Jesus!

Lekaroz herriko *Behitikoxar* baserrian sortutakoa naiz, Antonio Etxeberria eta Dominika Garaikoe-txea senar-emazteen semea. 1941 urteko otsailaren azkenengo egunean sortua. Nekazari familia baten

ondorengoa, hortaz, ez genuen guk maiz mariskoa afaltzeko. Gazte-gaztetatik lanera ohitua, zazpi anai-arreba izanta janari aunitz behar baitzen bizirik irauteko. Hamalau urteak arte, herriko joan nintzen, garai hartan, Lekarozko komentura aberatsak baka-rik joaten baitziren; baina, honekin ez dut erran nahi pobreak ginenik, gauzak diren bezala, gu baino gaizkiago bizi zirenak ere bai baitzeuden.

Oraindik gogoan dut, aitak zerbait gaizki egiten genuen aldiero, galtzak eusteko erabiltzen zuen zinturoi luze eta meharrarekin nola jotzen gintuen. Urteak pasa ahala, gure aita ez zela nik uste bezain gaixtoa konturatu naiz, gure hobe beharreko egiten zituela gauzak. Gainera, aunitzetan, estomakatik neketan ibiltzen zen, bihoztarrarekin, eta bere umore txarra maite zituen pertsonekin pagatzen zuen.

Hamazazpi urte bertzerik ez nituela, aizkora bizkarrean hartuta, egur ebakitzera joaten ginen oiha-nera emakumeak, Maria eta Tomasa etxean gelditzen zirelarik. Urte batzuen buruan, hainbar euskaldunek egin zuten bezala, anaia zaharrenak, aberria utzita, Ameriketara artzain gisa lan egitera joan ziren sos batzuk irabazteko asmoz. Leku arrotz hartan, dirua dexente irabazten zen nonbait, ez baitziren urte gehiegi pasatu, nik ere anaien bide berbera segitu nueneko. Hogeita sei urte nituela, eta sakelean nahiko sos bildu nuelarik, maletak bi eskuetan harturik, aita agurtuz eta ama gaixoari masailean bi musu emanaz, aldendu nintzen lehenengo aldiz maite nituen pertsonen-

gandik. Aitortu beharra dut, hasieran beldur pixkat nuela, inor ez baita egunero Ameriketara joaten eta are gutxiago, euskaraz bakarrik mintzatzen, erdaraz hitzen batzuk eta ingelesez tutik ere entenditzen ez zuen euskaldun bat. Baina ze erremedio, erabakia hartuta zegoen, horrenbertzez, ez zegoen atzera bueltarik. Kotxea zuen lagun batek eraman ninduen Iruñera. Bertan, abioia hartu eta hamabi orduren buruan ailegatu nintzen handik aintzinat nire bizilekua izanen zen lurraldera.

1967.urtean, Kaliforniako Pomona herria lautada berde eta zabalez betea zegoen, ardiekin lan egiteko leku paregabea zen hura. 200-300 buruko artaldeak (gehiago ez baziren) zaintzen pasatzen nituen gauak eta egunak. Baina, zenbat aldiz oroitzen izan naizen, Ameriketara egon naizen denboran, nire sorterriaz! Baztango mendietako loreen usainez, haize fresko eta garbiaz, jende umil eta maitagarriez ...

Ailegatu eta berehala, hilabete batera edo, aitararen heriotzaren berri izan nuen eta gehien mintzen nauena, hura behar den bezala agurtzera joan ez izana da, ez bainuen Lekarozera bueltatzeko bezainbertze diru. Kolpe gogorra izan zen, baina biziak aintzinat segitzen du eta nola edo hala, oztopo hori ere gainditu nuen.

Lanaz aparte, noizbehinka, Ameriketara joandako euskaldun guztiak elkartu eta izugarritzko parrandak botatzen genituen eta gure izerdiarekin eta ongi merezitako soldata gehienxkoena gastatu. Behinola, euskaldun-besta horietako batean, nire

lagun batek, bere osabaren alaba zaharrena aurkeztu eta ikusi bezain fite, hartaz maitemindu nintzen.

Ez zen lan erraxa izan hura nire beso artean edukitzea, emakume ederra baitzen eta ez zuen gizonik falta inguruan. Hala ere, ongi sufritu ondoren, euskaldunon eran, haren bihotzaren jabe egitea lortu nuen. Ezaguera egin eta handik bi urteetara, Josephina (hala zuen izena neskak) haurdun gelditu zen, horregatik, lehen baino lehen, elizatik ezkontzea erabaki genuen, bai ni eta bai bera, kristau zintzoak baikinena. Ezkontza hartan, nire familia falta izan zen, baina ezin izan zuten etorri, nire ama ordurako eri baitzegoen. Handik zenbait hilabetetara, amaren heriotzaren berri jakin nuen, baina emaztea haurra izateko zorian zegoela eta ezin nuen beraz amaren elizkizunera joan. Oraindik ere, gurasoei azken agurra ez emanaren arantza daukat bihotzean, eta hil bitartean, hor izango dut.

1969.urtean nire izen berbera daraman seme baten aita izan nintzen. Arras esperientzia ederra izan zen, eta gustua hartu genion nonbait, bigarren haurra ekarri baikenuen mundura. Denbora ustekabean pasatu zitzaidan, eta konturatu orduko bi semeak, Inaxio eta Andres, ezkontuta eta beren lurraldetik kanpo joanak ziren euren bizia egitera. Hasieran bai, kartak idazten zizkiguten, telefonoz deitu, bisitatzera etorri ... baina urteak pasa ahala, poliki-poliki, beren gurasoez aldentzan joan ziren. Hori gutxi balitz, emaztea, leuzemia gaixotasunaren ondorioz, lurpean sartu beharra izan nuen, eta ez lur ez zeru geratu nintzen.

Ez dakit nola aguantatu nituen hamabortz hila-  
bete luze, etxe handi eta heze batean, urte pasatxo,  
inoren konpainiarik gabe, inor besarkatu gabe.  
Urte hartan pasa nituenak ez dizkiot inori opa,  
ezta munduan dagoen gizakirik maltzurrenari ere.  
Aurten, 2000. urtean, mendearen aldaketarekin  
batera, nire bizitza tristeari aldaketa bat ematea  
erabaki dut, horretarako Amerika boteretsua alde  
batera utzita. Hasiara batean, Baztan, hau da, haz-  
ten ikusi ninduen lurraldea, familiarekin, (emazte  
eta bi semeekin), bisitatzeko esperantzak nituen,  
baina begira azkenean non gelditu diren nire espe-  
rantzak, bakardadean.

Izugarrizko gogoia dut sorterrira bueltatzeko,  
anai-arrebak besarkatzeko eta Baztango mendietan  
barna, gaztetan bezala, onddo bila joateko. Bidaia  
arras luzea egiten ari zait, inoiz baino luzeagoa. Lo  
egiten saiatu naiz, baina gibelesko atso zaharren ter-  
tulia dela eta ezin izan dut. Ondokoarekin solas  
egin nahian aritu naiz, baina atzerritarra da, por-  
tugeses dirudi, hortaz ez dugu bi minutu baino  
gehiago iraun duen elkarrizketarik izan. Hau  
gurutzeari! Trankiltzea erabaki dut azafatari kama-  
mila eskatuz, baina ez dut uste kamamila batek  
nire ezinegonak baretuko dituenik. Erlojuari begi-  
ratu diot eta kalkuluak egin eta gero, bederatzi  
ordu falta direla Euskal Herrira ailegatzeko ohartu  
naiz. Horrek gehiago nerbiostu nau, hau dela eta,  
behin eta berriz, airea sudurretik sakon hartu dut  
lasaitu nahian. Halako batean, abioia bortizki  
mugitu da, aldi berean azafatek *Don't worry, Don't*

worry oihukatzen dutela. Ameriketari egon naizen denborak, ingeles hizkuntza gutti goiti-beheti entenditzeko balio izan dit, eta inportantziarik gabeko turbulentzia tripi bat izan dela entendi dut azafatak errandakotik. Azkenerako, errenditu naiz, belarrietan algodoia jarri (gibelego atsoen solasak ez aditzeko) eta hain estu ditudan bakeroen lehenengo bi botoiak laxatu ditut, honela lo gustura egiteko.

Begiak berriz ere ireki ditudanean, erlojua begiratu eta hogeita minutu bertzerik ez zirela falta konturatu naiz. BAZEN ORDUE!

Gau osoa eman dugu abioian, baina indarberri- turik sentitzen naiz, hartzen antzera, negu osoa lotan eman banu bezala, kamamilaren efektua pasa zait dagoeneko, nerbioek, nire gorputza nola gaintzen duten sentitzen baitut. Azkenik, abioia lurreratu da eta tarrapataka jautsi naiz tramanku- lutik. Bi aldeetara begiratu dut eta ez dut anaia ikusi, goizeko bederatzi eta erdiak dira era bederatzi- etan geratua nintzen berarekin. Bila eta bila aritu ondoren, ez dut hura aurkitzen, ni airepor- tuan bakarrik utzita alde egin du. Ez dut inor eza- gutzen, ezezagunen artean nabil bueltaka, galdu- rik bakarrik. Ez da posible, Ameriketatik alde egin dut bakardadearengandik ihesi eta sorterrira aile- gatu, eta hemen ere bakarrik. Lurrean belaunika- tuta, maletak alde batean utziak ditudala, begieta- rik malkoak, bat bertzearen gibeletik erortzen zaiz- kidala sentitzen dut. Orduan, norbaitek eskuare- kin sorbaldan jotzen nauela konturatzen naiz,

burua, mantso-mantso bueltatu eta ... Ilezuria duen gizon bat da, aurpegia zimurrez beterik duena. Bizpahiru segundoz begiratzen diogu elkarri eta besarkada estu eta luze batean bat egiten dugu. Anaia zaharrena da, kotxearekin matxura bat izan duela eta, mantso ailegatu da aireportura. Azkenik, anaiaren kotxean sartu eta hor abiatu gara sorterrira bidean:

– Banitian gogua Lekarozera bueltatzeko.

– Gu ere arras konten gaudek hi berriz gure artean ikusteaz.

– Ze gise, ardiekin segitzen duk lanean?

– Ez, ez, saldu nitien, orain behiekin aitzen nauk.

– Gaten haiz bagodire iretze moztera?

– Ez, aspaldi utzi diet, orain uso ihintzire gaten nauk tarteka.

– Joño, nola aldatu dituken hemen gauzek. Lehen arbolez estalie zuken mendien tokian, karretera eta tunelak in ditiztek.

– Bai hala duk ...

\* \* \*

Ordu baten buruan, ailegatu gara Lekarozera. Herria aunitz hazi dela konturatu naiz, alde guztietatik eraiki baitituzte. *Behitikoxar* baserria, aldiz, nik utzi nuen bezala dago, nahiz eta barnetik berri-tua egon. Geroztik anaiaren familiarekin bizi naiz eta ez naiz inoiz ere bakarrik sentitu, familiako bertze partaide bat banintz bezala maite bainaute

denek. Beno, agurtzeko ordua ailegatu zait, bilobarekin onddo bila joateko geratua bainago.